



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 9a

2 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Legea, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko abenduaren 29an eta 30ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: Foru Legea, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

I. TITULUA

Kredituak eta horien aldaketak

I. KAPITULUA

Hasierako kredituak eta horien finantzaketa

1. artikulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

Onetsi egin dira 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Honako atalak dituzte:

a) Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen Aurrekontuak.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen Aurrekontuak.

c) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketa, inbertsio eta finantzaketa programak, baita finantza egoerak ere.

2. artikulua. Kreditu eta eskubide ekonomikoen kopurua.

1. Aurreko artikuluan aipatutako Aurrekontuen Gastuen Egoeretan sartutako programak burutze-

ko, 318.344.986.000 pezetako kopuru bateratua duten kredituak onetsi dira.

2. Aurreko artikuluan aipatutako Aurrekontuen Dirusarreraren Egoeretan, aurrekontu ekitaldian ustez likidatuko diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak agertzen dira, hain zuzen ere, 318.344.986.000 pezetako kopuru bateratua.

II. KAPITULUA

Aurrekontuetako kredituen aldaketa

3. artikulua. Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen aginduei lotuko zaizkie, baldin eta Foru Lege honek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko kontusailen arteko fondo mugimenduak, kontusail horietan helburu berbera duten kredituak baldin badira, Europako Batasunak eskatu duelako soilik bereizten direnak, gas-tuak nora doazen hobeto kontrolatu ahal izateko Europako Batasunak zati batean finantzatzen dituelako.

4. artikulua. Kreditu gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko a)tik f)ra bitarteko letretan aipatutako kredituez gain, 1998. urtean ondoko kredituek ere gehikuntzarik izaten ahal dute:

1. Lehendakaritza eta Barne Departamentuko kontusailok:

a) 04000-1709-1226 kontusaila, 20000 proiektua, "Epaiak betearaztea" izenekoa, epai horiek ezartzen duten kopuruan.

Betearazte horrek I. kapitulu ekonomikoari ez dagokion gasturik ekartzen baldin badu, horretara

rako kontusail berarizkoa gaitzen ahal da; horrek ere izaera gehigarria izanen du. Kasu horren barnean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien betearazte subsidarioa Nafarroako Gobernuaren esku izatean fondo ekonomikoak egotea beharrezkoa gertatzen denean, baita Zerga Gaietarako Txosten eta Ebazpen Organoarenak eta Zerga Administrazioaren organo kudeatzailearenak ere, gastuen itzulketa eskatzen baldin bada, eta era berean, Ezinbesteko Desjabetzapenerako Probintzi Epaimahaiaren erabakiak ere, eta Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen FEOGA-Bermearen laguntzen kudeaketaren ondoriozko finantza-zuzenketak ere.

b) 04000-1620-1226 kontusaila, 20000 proiektua, "1997ko K.P.I.aren aldentzearen ordainketen eguneratzea" izenekoa.

c) 04000-1620-1226 kontusaila, 20000 proiektua, "1997rako aurreikusi den benetako K.P.I.aren aldentzearen ordainketa" izenekoa.

d) 04300-1309-1221 kontusaila, 20000 proiektua, "Aldi baterako kontratuen bukaerako kalteordaina" izenekoa.

e) 04300-1709-1226 kontusaila, 20000 proiektua, "Zerbitzuak aitortzeko Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren aurreikuspena" izenekoa.

f) 04120-1001-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Lehendakari-ohi eta kontseilari-ohiendako prestazioak" izenekoa.

g) 04120-1239-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Funtzionarioen familia laguntza, osagarri berriak, itzultzeak, eszedentziak eta beste batzuk" izenekoa.

h) 04120-1309-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Lan kotratupekoen familia laguntza, osagarri berriak, itzultzeak eszedentziak eta beste batzuk" izenekoa.

i) 04120-1614-3141 kontusaila, 20002 proiektua, "Aldez aurretik jubilatzeagatik jaso beharreko kalteordaina, 259/1988 Foru Dekretua" izenekoa.

j) 04120-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, "Lan-istripuengatik aldi baterako lan-ezintasunaren subsidioa ordaintzea" izenekoa.

k) 04120-1700-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Kalteordaina. Derrigorrezko leku aldaketa, bizilekuaren aldaketa eta guzti" izenekoa.

l) 04120-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, "Lan-istripuengatik kalteordaina" izenekoa.

m) 04200-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izenekoa.

n) 02400-4809-2211 kontusaila, 50002 proiektua, "Dirulaguntzak" izenekoa eta 02400-8319-2211 kontusaila, proiektu berekoa, "Maileguak" izenekoa.

ñ) 02100-6021-2-2221 kontusaila, 51001 proiektua, "Tuterako komisaldegiko obrak" izenekoa.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko hurrengo kontusailak:

a) 11410-9500-6331 kontusaila, 12002 proiektua, "Osoko kreditua. 8/1988 Foru Legeko 39. artikulua" izenekoa.

b) 11300-8500-6127 kontusaila, 14002 proiektua, "Alor publikoko akzioak erostea" izenekoa.

c) 16003 projektuan jasoak, hurrengo izena dutenak: "Enplegu eta ADAPT ekinbideetako proiektuetako ekintzen amaiera, 94-97 programa-zio konpromisoak (Europako Gizarte Fonda)".

d) 11100-2269-9111 kontusaila, 30000 proiektukoa, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

3. Toki Administrazio Departamentuko kontusailak:

a) 21100-7600-9129 kontusaila, 11000 proiektua, "Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuak sustatzea".

b) 21100-4600-9129 kontusaila, 11000 proiektua, "Toki Erakundeetako administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea" izenekoa.

c) 21220-4600-9125 kontusaila, 12000 proiektua, "Toki entitateen arazoei aurre egiteko finantza-laguntzak".

d) 21300-7600-9122 kontusaila, 13000 proiektua, "Azpiegituretan gertatu diren hondamenezko kalteendako laguntza bereziak".

e) 21300-7600-4411 kontusaila, 13001 proiektua, "Ibaiak Arazteko eta Osasuntzeko Plan Zuzentzailea" izenekoa, behean aipatzen diren obrei 1998 urteko zatia ordaintzeko behar beste diruarekin; alegia, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazio Departamentuak izenpetu duten Hitzarmenean, Hiri Urbeltzak Saneatu eta Arazteko Plan Nazionaleko Jarduketei buruzkoan, diren obrak, Europako Batasuneko Kohesio Fonden kontura finantzatzeko proiektuen arabera.

4. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 31000-2269-4421 kontusaila, 30000 proiektua, "Ingurugiro-hezkuntzako jarduerak" izenekoa.

b) 31100-2129-4421 kontusaila, 30000 proiektua, "Ingurugiro-kalitatea kontrolatzeko sarea mantentzea" izenekoa.

c) 31100-7600-4421 kontusaila, 30000 proiektua, "Hiri-hondakinak balorizatzea" izenekoa.

d) 31100-7709-3-4421 kontusaila, 30000 proiektua, "Elektrizitate-lerroak aldatzeko programa" izenekoa.

e) 31200-2279-5331 kontusaila, 30000 proiektua, "Ingurugiro-hezkuntza eta jendeari arreta egitea" izenekoa.

f) 31200-7600-5121 kontusaila, 30000 proiektua, "Ibaiak bideratzea eta defentsak jartzea" izenekoa.

g) 30000 proiektuari dagokiona, "Oso kutsakorrak diren produktu fitosanitarioak ordeztzeko pizgarriak" izenekoa.

5. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontusailok:

a) 41000-1239-2-4211 kontusaila, 00000 proiektua, "Zerbitzuen aitorpenerako, famili laguntzarako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

b) 41120-6001-4241 kontusaila, 10000 proiektua, "Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako desjabetzapenak" izenekoa, desjabetutako lurra kitun bidez zehazten den prezioan ordaintzea bermatzeko adinako zenbatekoan.

c) 10001 proiektuari dagokiona, "Gizarte-ekimeneko ikastetxeetako inbertsio programak" izenekoa.

d) 41110-4600-4222 kontusaila, 10002 proiektua, "Eskola batasunen jarduera gastuetarako eta D.B.H.ko ikasleak eskolatzen diren udal eraikindako dirulaguntza" izenekoa.

e) 41110-4800-4251 kontusaila, 10002 proiektua, "Irakaskuntza ertain eta goi ikasketetarako beka eta laguntzak" izenekoa, beka deialdiaren baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek haien onura izan dezaten bermatzeko adinako zenbatekoan.

f) 10002 proiektuari dagokiona, "Haur Hezkuntzako lehen zikloa ezartzea" izenekoa.

g) 41110-2210-4552 kontusaila, 10004 proiektua, "Jantokiak" izenekoa.

h) 41110-2230-4252 kontusaila, 10004 proiektua, "Eskola garraioa" izenekoa.

i) 40300-2230-4224 kontusaila, 40000 proiektua, "Unibertsitate ikastetxeetarako garraioa" izenekoa.

j) 40300-4800-4251 kontusaila, 40000 proiektua, "Prestakuntza eta Ikerketa eta Garapena (I+G) Planaren laguntzak" izenekoa.

k) 43200-4811-4251 kontusaila, 60000 proiektua, "Eskualde ez-euskalduneko ikastolendako dirulaguntza berezia" izenekoa.

6. Osasun Departamentuko kontusailok:

a) 1241 ekonomi kodekoak, osasun arloko udal langile transferituen lansariak ordaintzeko direnak, Foru Administrazioakoak izanik Toki Osasunaren zerbitzuan dauden eta Nafarroa Osasun Eskualdetan Banatzeari buruzko Foru Legea eta 11/1992 Foru Legea aplikatzearen ondorioz transferitzen diren funtzionarioen soldatak ordaintzeko behar den zenbatekoan.

b) 53000-2269-5-4139 kontusaila, 12001 proiektua, "Lan-arriskuen prebentzioa sustatzea" izenekoa.

c) 52000-1239-4112 kontusaila, 40000 proiektua, "Zerbitzuen aitorpen, famili laguntzaren gehikuntza, gradu, antzinasun, osagarri berri, eszedentziatik itzultze eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

d) 52000-1309-4112 kontusaila, 40000 proiektua, "Zerbitzuen aitorpen, antzinasunaren gehikuntza, osagarri berri, eta abarretarako aurreikuspena" izenekoa.

e) 40000 proiektuari dagokiona, "Kalitate kontrola kirofanoetako instalazioetan, airea kanporatzeko sistemetan eta anestesia tresnetan" izenekoa.

f) 40000 proiektuari dagokiona, "Nafarroako Ongizate Institutuaren (NOI) eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko osasun arloko koordinaziorako Programak, Ekimenak, Proiektuak eta Ekintzak" izenekoa.

g) Botikak erosteko direnak, 2215 kode ekonomikoa dutenak, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47 eta 49 gastu-programetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

h) 52240-6020-4127 kontusaila, 43000 proiektua, "Plan zuzentzaileko obrak" izenekoa.

i) 52300-4809-4122 kontusaila, 47000 proiektua, "Botika prestazioak" izenekoa.

j) 52300-4809-2-4122 kontusaila, 47000 proiektua, "Xurgatzaileak eta beste osasungai batzuk" izenekoa.

k) 52202-4809-4-4112 kontusaila, 48000 proiektua, "Protesiak, ortesiak eta ezinduehtzako ibligailuak" izenekoa.

7. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontusailok:

a) 71110-6080-7121 kontusaila, 20001 proiektua, "Produktzio integratuaren sustapena" izenekoa.

b) 71120-7400-7151 kontusaila, 20002 proiektua, "Esne-behien sektorea berregituratzea. I.T.G. Ganadero, S.A.ren transferentziak" izenekoa.

c) 72220-7700-2-5312 kontusaila, 40002 proiektukoa, "Ustiategiaren oinarritzko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Foru Legea)" izenekoa.

d) 71210-4700-7161 kontusaila, 50001 proiektua, "L.F.A.ren interesen hobaria" izenekoa.

e) 71210-4700-3-7161 kontusaila, 50001 proiektua, "Merkataritza-kooperatibentzako laguntza, hondamen-kalteak direla-eta" izenekoa.

f) 71210-7700-7123, 50001 proiektukoa, "Nekazaritzako ustiategiaren eraginkortasunaren hobekuntza (FEOGA-O)" izenekoa.

g) 71210-7700-2-7123 kontusaila, 50001 proiektukoa, "Errentamendu historikoak. Lurrak erostea" izenekoa.

h) 72120-7701-7151 kontusaila, 60001 proiektua, "Dirulaguntza, kooperatiben nekazaritza-produktuak biltegitatu eta eraldatzeko tegiak eraiki, zabaldu edo hobetzeko" izenekoa.

i) 72120-7701-4-7151 kontusaila, 60001 proiektua, "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak, kooperatibak ez direnentzat" izenekoa.

j) 20001 proiektuari dagokiona, "Patata Ekoizleen Erakundeentzako laguntzak" izenekoa.

k) 60001 proiektuari dagokiona, "Kontratu homologatuak sustatzea" izenekoa.

8. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontusailok:

a) 81110-8317-5424 kontusaila, 30002 proiektua, "Berritze proiektuetako kostuaren 100eko 50a arteko diru-aurrekinak" izenekoa.

b) Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren "Ekoizpenaren berrantolamendua" 30004 proiektuaren kontusailak.

c) 83200-4709-6-3221 kontusaila, 60001 proiektua, "Enpresa, kooperatiba eta S.A.L. endako transferentziak lanpostuak sortzeko" izenekoa.

d) 83200-4810-3221 kontusaila, 60001 proiektua, "Enplegu zentro berezietarako transferentziak, ohiko eragiketarako" izenekoa.

e) 60001 proiektuari dagokiona, "Enpleguaren behin-behinekotasuna gutxitzeko laguntzak" izenekoa.

f) 60002 proiektuari dagokiona, "INAFRE Fundazioarekiko Hitzarmena, FSEk kofinantzatutako prestakuntza jarraiko ekintzetarako eta kofinantzatu gabekoetarako".

9. Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 91120-6020-3137 kontusaila, 10001 proiektua, "Iruñeko Espetxeko lanak eta ekipamendua" izenekoa.

b) 93100-4810-3132 kontusaila, 22002 proiektua, "Plan Gerontologikoa garatzeko ekintzak" izenekoa.

c) 93300-4802-3134 kontusaila, 25001 proiektukoa, "Bizibiderik gabeko famili nafarrendako laguntzak" izenekoa.

d) 93300-4600-3134 kontusaila, 25002 proiektua, "Oinarritzko gizarte zerbitzuak" izenekoa.

e) 93300-4809-3132 kontusaila, 26001 proiektua, "Pentsio ez-kontributiboak" izenekoa.

10. P0000-7450-1111 kontusaila, 01001 proiektukoa, "Nafarroako Gobernuaren kapital transferentziak" izenekoa, Legebiltzarreko egoitza berriarentzako behar izan ditzaketen kreditu handiagoen prebisioan.

5. artikulua. Betegabeko lanpostuak direla eta, kreditu soberakinen norakoa.

Betegabeko lanpostuak direla eta eman daitezkeen soberakinak behin-behineko kontratuak finantzatzeko erabiltzen ahal dira, zerbitzuen funtzionamendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako ezarriko dira kredituak, horiei dagokien programan.

II. TITULUA Langileriaren gastuak

I. KAPITULUA Jarduneko langileriaren ordainketak

6. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansariak.

1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Administrazio Publikoen eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko langileen lansariak, 1997.eko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legean ezarritakoak, 100eko 2,1 gehituko dira, hala badagokio, lanpostu bakoitzari atxikitakoek zailtasun tekniko berezi, dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasuneko edukiarekin dagokien harremana gordetzea ziurtatzeko beharrezkoak diren lansari-egokipeen zein Negoziazioko Mahai Orokorrean 1995eko abenduaren 1ean izenpeturiko Hitzarmena betetzearen kaltetan gabe. Beti ere, aipatu lansari-egokipenak egin aurretik beharrezkoa izanen da, Foru Komunitateko Administrazioaren edo bere erakunde autonomoen zerbitzuko langileei dagokienean, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren txostena.

7. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoetako lan-kontratatu lan-sariak.

1. 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Administrazio Publikoen eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratatu lan-sariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, Foru Lege honen 6. artikuluan finkatutako irizpide berberei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako Administrazio Publikoen zerbitzuko lan-kontratatu lan-sariak, Administrazio Publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, beti ere Foru Lege honetako 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

8. artikulua. Nafarroako Gobernu kideak eta libreki izendaturiko aldi baterako langileak.

1. 1998.eko ekitaldian, Nafarroako Gobernu kideen lansariak, Foru Lege honetako 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen duten 1997an ezarritakoekiko.

2. 1998.eko ekitaldian, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Administrazio Publikoen eta bere erakunde autonomoen aldi baterako langile libreki izendatu lan-sariak, Foru Lege honetako 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen duten 1997an ezarritakoekiko.

9. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako beste langileak.

Lehenagoko Lansariak Zehazteko Sistemari (LZH) ezarritako lansariak jasotzen dituzten barne mediku egoiliarren eta INSALUdetik transferitutako osasun langileen lansariak, urriaren 20ko

11/1992 Foru Legearen 29.3 artikuluan eta Lehen Xedapen Iragankorrean, hurrenez hurren, zehaztutakoak izanen dira. Lege horren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berarizkoa arautzen da.

II. KAPITULUA Klase pasiboak

10. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, egunera- zeko eskubidea duten Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioak 100eko 2,1 gehituko dira.

2. Halaber, aipatu klase pasiboei dagozkien famili laguntza edo seme-alaba elbarrituengatik ordainketek ere arestian aipatu den gehikuntza izanen dute.

11. artikulua. Funtzionarioen pasiboen araubidea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbilduak, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegelearen bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorren 3. atalean eta xedapen osagarrietan ezarritakoari jarraikiz, eskubide pasiboen araubidea martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea baino lehen indarra zuten xedapenei lotuko zaie. Soldata erregulatuak zehazteko, aintzakotzat hartuko dira funtzionarioek jasotako lansari handienak, aipatu Foru Legearen eta horren exekuziorako emandako Lansarien Behin-behineko Erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera, eta horiei Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan hurrengo urteetarako ezarritako portzentaiak gehituko zaizkie. Artikulu honetan aipatua ez zaie ezarriko ez lan-istripuaren ondoriozko ezgaitasun, ez lanbideko eritasunengatik pentsioei.

2. Aurreko atalean aipatu xedapenen arabera, jubilazio eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontutan hartuko. Urte horien barnean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki egindako urteak, beti ere behar den Administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981.eko urriaren 29an hartutako Erabakiari, eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko edo Toki Erakundeetako Administrazioaren Bahituretxeren bati atxikitako funtzionarioek, Foru Lege honek indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratu zirenak, gauzatutako jubilazio-, alargun-

eta umezurtz-pentsioei buruzkoan, honako hauek zenbatuko dira, pentsioaren zio den egintza gertatzen den eguneko atzeraegineko ondorioz: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, beti ere, aipatu aldiak aipatu Bahituretxeei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikako ehunekoa edo kuota.

Aurreko atalean aipatu funtzionarioek gauzatu-tako jubilazio-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inolaz ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, hala badagokio, beste batzuekin batuta, aipatu erregimenen ondoriozko pentsiorik gauzatu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu egingo baitira horiek.

3. Artikulu honen lehen atalean xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren barnean dauden funtzionario publikoek 1998. urtean hartutako jubilazio eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontutan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoak 1998. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoei geroko Aurrekontuei buruzko Foru Legeek, hau barne, finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horretarako, 1998rako soldata eta garestitze plusaren zenbatekoak lortu ahal izateko, jarraian dagoen taulan agertzen diren zifrei hurrengoak ezarri beharko zaizkie: Foru Lege honetako lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak xedatua eta Foru Lege honetako 10. artikuluan zehazten den portzentaia.

Maila	Soldata	Garestitze plusa
0	1.712.258	1.119.329
1	1.435.819	1.060.376
2	1.181.173	1.005.987
3	1.051.501	978.331
4	999.415	967.248
5	955.495	957.891
6	915.028	949.230
7	876.977	962.791
8	849.945	992.802

9	811.245	984.530
10	788.462	961.640
11	767.954	949.646
12	723.900	923.636
13	693.862	908.911
14	639.058	880.947
15	588.592	840.614
16	557.817	822.490
17	506.949	804.404

Salbuespen gisa, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ondoriozko ezgaitasunagatik jubilaziorik dagoenean, bai eta lan istripuz edo lanbideko eritasunez hil eta alargun edo umezurtzendako pentsioetan ere, funtzionarioak bere lanpostuagatik jubilatu edo hil aurreko urtean jasotako lansariak osatuko dute alokairu arautzailea.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako lansari sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean emandako ahalmena oinarritzat hartuz, pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoa izanen da, funtzionario horientzako 1983.eko zenbatekoari hurrengo urteetan gehitukoak erantsiz, 1998koa barne, ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketa lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko arauteria aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan ezarritako pentsio igoeren portzentaia erantsirik.

Horretarako, 1984ko urtarrilaren 1az geroztik sartutako funtzionarioak aipatu Foru Legea baino lehenago zeuden lanpostu edo mailetan sartuko dira, orain betetzen dituzten lanpostuen eta lehenagokoen arteko baliokidetzaz edo analogiaz.

5. Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbilduak, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegelearen bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorraren 1. atalean xedatutakoarekin bat, 1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago zeuden klase pasiboentzako ez da aplikagarria izanen aipatu Langileriaren Estatutua; ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legeetan ezarritako portzentaia bakarrik gehituko zaie.

6. 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko jubilazio-pentsioa urteko 1.472.464 pezeta gordin da. Atal honek xedatua bakarrik ezarriko zaie indarreko arautegiaren arabera eguneratzeko eskubidea duten pentsioei.

7. 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko alargun-pentsioa urteko 840.128 pezeta gordin da.

Era berean, 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, urteko 840.128 pezeta gordin izanen da Nafarroako Administrazio Publikoen Klase Pasiboen ezain Bahituretxeren kargura emandako umezurtz-pentsioen gutxieneko kopurua, zein bere Erregelamenduaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko hamazortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkeraren arabera.

Beraz, gehikuntza honetatik at geratu da aipatu 5/1991 Foru Legeak ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzen zen arautegiaren arabera emandako umezurtz-pentsio oro, onuradunaren ezigaitasuna dela eta aitorturikoak salbu.

12. artikulua. 1931ko martxoaren 10eko Erabakiaren bidez onetsi Jubilazio eta Pentsioei buruzko Erregelamenduan sarturik ez dauden funtzionarioen eskubide pasiboak.

Kapitulu honetan xedatutakoa ez da aplikagarri izanen ondoren aipatzen diren funtzionarioentzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatean sartuta daudenentzat, Estatuko Administrazioetik eginkizun eta zerbitzuak transferitzeari buruzko Errege Dekretuen ondorioz, beti ere, hasieran zeukaten gizarte segurantzako edo prebisioko sistemarekin jarraituko baitute.

b) Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik egonda Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoetan sartutakoentzat.

13. artikulua. Ikastetxeetako funtzionarioen borondatezko jubilazioa.

1. Funtzionarioek beren funtzionario izaerari uko egiten badiote edo beren borondatez jubilatzen badira 60 urtetik gora eta zerbitzuan 28 urte eginda, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko Lege Organikoaren (LOGSE) bederatzigarren xedapen iragankorraren babesean eta bertan adierazten diren baldintzak betez, Foru Komunitateko Administrazioak borondatezko jubilazio prima bat emango die, xedapen iragankor horretan aurreikusitako aparteko haborokinarekin osagarri izanen dena.

2. Jubilazio prima eskuratzeko, funtzionarioak 1989ko irailaren 1ean jardunean egon beharko zuen, egoera horretan etenik gabe jarraitu, eta data horretatik aitzina, Nafarroako Foru Komunitatean dauden ikastetxeetako plantiletako lanpostuetan aritu.

3. Aurreko zenbakietan aparteko haborokinari eta jubilazio primari buruz xedatutakoa, ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean, edo geroagokoenean, funtzionario bihurtu ziren langileei aplikatuko zaie, baita lan itunpeko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko jubilazioarengatik sari osagarriaren zenbatekoa, Foru Lege honetako 1. eranskinean funtzionarioaren adinaren, zerbitzu urteen eta sartuta dagoen kidegoaren arabera ezartzen dena izanen da eta jubilatua ordain-sariei dagokien aurrekontu-kontusailaren kargura ordainduko da.

III. KAPITULUA Beste zenbait xedapen

14. artikulua. Langileen aldibaterako kontratazioa.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, zerbitzuaren beharrak hala eraginda, beharrezkoak diren langileak administrazio edo lan araubidean aldi baterako kontratatzeko, Foru Lege honetan ezarritako aurrekontu-mugen barnean.

15. artikulua. Lanpostuak berriz egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantila berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuengatik funtsik gabe gelditutako lanpostuak, betegabeak ez direnak, berriz ere egokitzeko. Lehendakaritza eta Barne Departamentuak, zuzenean eta salbuespen gisa, eginkizunak berriz eman eta maila berean egokitzen diren lekualdaketak eginen ditu.

16. artikulua. Foruzain eta Suhiltzaile izateko deialdiak.

1. Foruzainaren Antolamendu eta Eginkizunei buruzko Plan Zuzentzailean, Nafarroako Parlamentuak 1994ko ekainaren 28an onetsian, aipatzen diren aurreikuspenekin bat, Nafarroako Gobernuak 1998ko lan eskaintzan ondoko lanpostuak sartuko ditu, aurrekontu kontsignaziorik gabe: 4 foruzain inspektore, 6 foruzain subinspektore, 20 foruzain sarjentu, 35 foruzain kabo eta 50 foruzain.

2. Suitzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailean, Nafarroako Parlamentuak 1994ko irailaren 14an onetsian, aipatzen diren aurreikuspenekin bat, Nafarroako Gobernuak 1998ko lan eskaintzan ondoko lanpostuak sartuko ditu, aurrekontu kontsignaziorik gabe: 20 suhiltzaile kabo, eta 40 suhiltzaile.

III. TITULUA Finantza eragiketak

I. KAPITULUA Abalak

17. artikulua. Abalak.

Legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak guztira 2.000 milioi pezeta osatzen duten abalak eman ahal izanen ditu.

Aipatu mugaren barnean eta Industri Politikako eta Inbertsio eta Enpleguaren Sustapenerako Bitarteko Neurriei buruzko Arauko 35. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak Nafarroan diharduten Elkarrekiko Bermeen Sozietateekin abalak itundu ahal izanen ditu eta haren eragiketei bigarren abala eman.

II. KAPITULUA Zorpetzea

18. artikulua. Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, merkatuaren ohiko baldintzetan maileguak edo kredituak itundu edo Zor publikoa jaulkitzeko. Haren muga izanen da 1998ko abenduaren 31ko saldo biziduna ezin izanen dela izan 1998ko urtarrilaren 1eko saldoa baino 5.000 milioi pezeta gehiagokoa.

IV. TITULUA Toki Entitateak

19. artikulua. Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako Zergetan duten Partaidetza Fondoa.

Kapital Transferentzien Fondoaren banaketa 1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako proiektu hauetan agertzen da: 13001 zenbakiduna, "Kapital Transferentzien Fondoa, plan zuzentzaileak" eta 13002 zenbakiduna, "Kapital Transferentzien Fondoa. Toki-programazioko inbertsioak".

Kapital Transferentzien Fondoko baliabideak, Ekitaldi ekonomikoan erabili gabeak, hurrengo ekitaldian fondo horretara pasatuko dira. Gerakinen kontuetako ekonomiek aurreko ekitaldian jasotako lanen kosturik haundienak finantzatuko dituzte. Fondo horretako kontusailen artean, aurrekontu-ekitaldi honen barnean, programaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-egokitzapenak egin ahal izanen dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 39. artikuluko 3. idazatiak ezarritakoaren arabera.

20. artikulua. Europako Batasuneko diruez finantzatzeko inbertsioen Plan Osagarria.

Europako Batasuneko diruez finantzatzeko Azpiegitura Inbertsioen Plan Osagarria (2 eta 5b helburuak) burutuko da. Hura Toki Administrazio-ko Departamentuaren eskumenekoa izanen da.

1998an Europako Batasunetik hartzen diren dirusarreraren adinako zenbatekoan burutuko da Plana. Lehentasunak 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planeko kalifikazioen hurrenkera errespetatuz ezarriko dira. Kalifikazio haiek Plan hari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean eta hori garatzen duen Foru Dekretuan aipatzen dira.

21. artikulua. Ohiko Batasunen inbertsioetarako dirulaguntza eta onurak.

Bardeetako Komunitateak eta Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Batzarrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako dirulaguntzak eta gainerako onurak jaso ahal izanen dituzte, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

22. artikulua. Udal Funtzionarioen Bahituretteen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak 767.970.000 pezeta-ko ekarpena egingen du, Udal Funtzionarioen Bahituretze Orokorren barnean dauden Nafarroako Toki Entitateetako funtzionarioen artean sortzen diren pentsioak finantzatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Bahituretze Orokorren kudeaketak 1997ko ekitaldian sortutako kostuen banaketan Udal Bakoitzari esleitutako kuotaren proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 414.000.000 pezeta banatuko ditu Iruñea, Tuter eta Tafallako Udalen artean, haien berariazko Bahituretteen kudeaketak 1997ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

23. artikulua. Administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena.

11000 proiektukoa den "toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena" izeneko 21100-7600-9129 kontusailak finantzatu-ko ditu Nafarroako Gobernuak eta elkartu egiten diren udalek sinatu beharreko hitzarmenetako aurreikuspenak.

Kontusail hori mankomunitateen egoitzak erai-ki eta hobetzeko erabili ahal izanen da. Lehentasunak 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planeko kalifikazioen hurrenkera errespetatuz

ezarriko dira. Kalifikazio haiek Plan hari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean eta hori garrantzen duen Foru Dekretuan aipatzen dira.

V. TITULUA

Aurrekontuen kudeaketa

24. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak.

Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak Mahai edo Lehendakari bakoitzak eskatu ahala libratuko dira, irmoki eta aldizkakotasunez.

25. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuaren dotazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoari eginen zaizkion ohiko transferentziak, orokorrean, alde aurreko hiruhilekoetan eginen dira, behar handiagorik frogatzen ez bada, behintzat.

Unibertsitate hari eginen zaizkion kapital transferentziak bi epetan libratuko dira, alde aurretik haren Gerentziak hori eskatuz eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

26. artikulua. Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren aurrekontuaren dotazioak.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari eginen zaizkion ohiko transferentziak alde aurreko hilabetetan libratuko dira, orohar, behar haundiagoak justifikatzen ez badira, behintzat.

Kapital transferentziak libratuko dira Partzuergoaren Lehendakariak eskatzen dituen neurrian, haiek eskatzea eragin duen gastua egin dela frogatuz.

27. artikulua. Herrietako kontsultategien dirulaguntzak.

Herrietako kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko dirulaguntza 100eko 100 izanen da, haiek burutzeko lehentasun-irizpideei dagokienean Nafarroa Osasun Eskualdeetan banatzeari buruzko Foru Legearen garapenetik sortutakoak aplikatuz.

28. artikulua. Eritetxe eta beste laguntza-erakundeendako dirulaguntzak.

Aurrekontu hauetan eritetxe eta beste laguntza-erakundeendako dagoen dirulaguntza hamabi hilekotan ordainduko da, aurreko urteetako defizitari egoki dakiokkeen dirulaguntzaren zatia izan ezik; dirulaguntza horiek emanen dira ondoko eskakizunak betetzen badira:

a) Hamar milioi pezetatik gorako hornidura-kontraturik eta inbertsiorik ez egin eta ez perfektzionatzea, langile finko edota sei hilabete baino gehiagorako diren aldi baterakoak ez kontratatzea, ezta kredituak izenpetzea ere, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearen Zuzendaritzak aurretik baimena eman gabe.

b) Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideara igortzea jasotako dirulaguntzen kudeaketa edo norakoa behar bezala kontrolatzeko horrek beharrezkotzat jotzen dituen datu, txosten, agiri edo aurrekin guztiak.

29. artikulua. Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearen Zuzendari Kudeatzaileak baimena ematen ahal du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 46. artikuluan aipatzen diren aurrekontu-aldaketak egiteko, Organismo Autonomo horren esparruan.

30. artikulua. Sindikatuak eta Enpresarioen Organizazioak.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren aurrekontuan Sindikatuentzat horietako bakoitzaren ordezkari-tza-mailaren arabera egiten den gastu-kontsignazioa, guztien artean banatuko da, bakoitzak Foru Komunitatearen eremuan duen ordezkapenaren arabera, eta 1997ko abenduaren 31n lorturiko emaitzei jarraikiz.

Halaber, "Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan dauden langile-sindikatuak, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresarioen organizazioei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila horietako bakoitzak aipatu Kontseiluan duen kide-kopuruaren arabera banatuko da aipatu entitateen artean.

Era berean, "Sindikatuak hauteskunde-prozesua jarraitzeko Batzordea osatzen duten sindikatuak bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko Batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuak artean banatuko da, bertan duten kide-kopuruaren arabera.

31. artikulua. Gastu-konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Industri Politikako eta Inbertsio eta Enpleguaren Sustapenerako bitarteko Neurriei buruzko Arauan ezarritakoari jarraikiz, eta baita martxoaren 27ko 79/1 995 Foru Dekretuan ezarritakoari, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikatze

durakoak bertan aurreikusitako laguntzak ematen ahal dituzte, horretarako hurrengo aurrekontuen kargura gastu konpromisoak hartuz, beti ere aipatu konpromisoek Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako ezartzen dituen mugak gainditzen ez badituzte.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lanekoak eta Osasunekoak, dagozkien eskumenen esparruan, beka eta dirulaguntzak eman ditzakete ikertzaile eta artisten prestakuntza eta espezializaziorako, hezkuntza berezirako, Foru Komunitateko elkarrizketarako laguntzaileendako egitaraurako, eta Nafarroarendako interes berezia duten proiektuak egiteko. Xede horretarako, gastu-konpromisoak hartuko dituzte beren gain, dauden ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, baldin eta errandako konpromisoek gainditzen ez badituzte xede horretarako aurreko ekitaldian aipatzen diren zenbatekoak. Gastu konpromiso berbera, muga horiexekin, eskuratzen ahal du Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, enpresen lehiakortasunerako laguntzak, maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuan arautuak, emateko, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, eskola garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatzeke.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarte-ekintzako alorrean heitzeko jardueretarako laguntzak eman ahal izanen ditu, horretarako etorkizuneko ekitaldien kargura konpromisoak hartuz, aurreko ekitaldian helburu horrekin kontsignaturiko kopuruak gainditzen ez dituztenean, beti ere.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak hurrengo ekitaldietako aurrekontuen gain gastu konpromisoak hartzea izanen du, lurzati kontzentraziorako oinarri eta proiektuei eta larreak hobetzeko inbertsioei dagozkien urteaniztatetako gastuak finantza ditzan, beti ere Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzeko ezartzen dituen mugak gainditu gabe.

4. Nafarroako Gobernuak baimena ematen ahal du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu konpromisoetarako, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago, Europako Batasunak elkarfinantzatzen dituen eta hiru urtetik goitiko plangintza eduki behar duten plan, egitarau eta ekimenei aurre egiteko.

5. Apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegilearen II. Tituluaren esparruan, martxoaren 16ko 2/1992 Foru Legeak berorri emandako idazketare-

kin bat etorritz eta Foru Lege hori garatu zuen irailaren 28ko 297/1992 Foru Dekretuaren, nekazaritza egituren eraginkortasuna hobetzeko laguntza Erregelamendua onesten duenaren, arabera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak aipatu arau horietan aurreikusitako laguntzak eman ahal izanen ditu, horretarako gastu konpromisoak hartuz, behar den ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, beti ere konpromiso horiek ez badituzte Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzeko ezarriko dituen mugak gainditzen.

6. Nafarroako Gobernuak luzatzen ahalko ditu, gehienez ere zazpi urte arte, industri politikako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako bitarteko neurriei buruzko Arauko 34. artikuluko 1.a) eta 6. ataletan aurreikusitako epeak. Baita ere, dirulaguntzak emeki-emeki ordaindu ahal izanen ditu, 10.000 milioi pezetatik goitiko inbertsio-proiektuetan eginiko inbertsioaren gauzatzearen arabera, proiektu horiek 1998an eta hurrengo urteetan laguntza horiek hartzeko aurkezten baldin badira.

7. Nafarroako Gobernuak baimena eman ahal izanen du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu konpromisoetarako, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin batera esnearen ekoizpenari uzteko planak finantzatzeko.

8. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartu ahal izanen ditu, garapenerako lankidetzaproiektuak finantzatzeko, proiektuok martxoaren 9ko 95/92 Foru Dekretuan xedatuaren arabera diruz lagunduak badira, eta proiektuen bideragarritasunak ezinbesteko badu ekitaldiaz gaindiko eta, gehienez, hiru urterako plangintza.

9. Nafarroako Gobernuak etorkizuneko ekitaldietara luzatzen diren gastu-konpromisoak hartu ahal izanen ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Legeak baimentzen duena baino gehiago, zazpi urte arte, errepideak zaintzeko kontratuetan.

10. Nafarroako Gobernuak behar den ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartu ahal izanen ditu, garraio-zerbitzu publikoen titular diren enpresei ordainak emateko.

32. artikulua. Bideragarritasun ikerketetarako dirulaguntzak.

Bideragarritasun ikerketak egiteko dirulaguntzak, krisian diren enpresak onbideratu eta berra-

biatzeko laguntzen ematea arautzen duen martxoaren 4ko 1/1985 Foru Legean aurreikusitakoak direnak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak emanen ditu, eta ordainketa ikerketa egin duenari zuzenean egiten ahal zaio, beti ere, enpresa onuradunaren oniritziarekin.

33. artikulua. Industri politikako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako bitarteko neurriei buruzko arauak.

1998ko urtarrilaren 1etik aitzina:

1. Industri politikako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako bitarteko neurriei buruzko Arauaren 34. artikuluan aurreikusitako dirulaguntzak, baita enpresa txiki eta ertainendako mailegu eta leasing eragiketen hobariak ere, hala software-an egindako inbertsioei nola enpresak beren instalazioetako azpiegitura hobetzeko egitera behartuta dauden ordainketei aplikatu ahal izanen zaizkie.

2. Industri politikako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako bitarteko neurriei buruzko Arauaren 13. artikuluko 3. idazatia aldatu egiten da. Honela geratuko da:

“Urbanizaturiko lurzoruen helburua industriak, enpresa osagarriak eta zerbitzuetakoak ezartzea da. Salmenta-prezioa urtero Nafarroako Gobernuak finkatuko du, eta prezioaren ordainketa zatikatu ahal izanen da, urtebeteko hamabost ordainalditan gehienez ere, eta urtebeteko ordainaldi bakoitzari aplikatu beharreko interesa ez da honako hau baino baxuagoa izanen: alegia, aurreko urteko azken laneguneko urtebeterako MIBOR batezbesteko tipoari, Espainiako Bankuko Oharpenen Zentralak jakinarazten duenari, bi puntu kentzean lortzen dena.

34. artikulua. Europako Batasuneko programen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena ematen ahal du, ekitaldian zehar Europako Batasunak kofinantzatutako programa eta proiektuak ahalik eta hobekien burutzeko, Europako Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren Jarrailpen Batzordeek edo Europako Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketa horiek gastuen egoeretan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

35. artikulua. Itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 49. arti-

kuluaren bigarren eta hirugarren ataletan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru-kopurua hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da 1998. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengurako fondo publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari irakasle/unitate itundu harreman egokiak ezartzeko, indarra duen ikasketa plana itunaren barnean dagoen maila bakoitzean emateko. Astean 25 eskolordu ematen dituzten irakasleen lanaldien arabera kalkulatu dira. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ezin ditu bere gain hartu lansarien gehikuntzak, orduen gutitzeak edo hamalagarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoetan ezarritakoa gainditzearen ondorioa lekarkeen beste edozein gorabehera (zuzendaritza karguen osagarriak edo antzinatasuna, kasu).

Langile irakasleen lansariei buruzko aurreikuspenek 1998ko urtarrilaren 1etik hasita hartuko dute indarra, Irakaskuntza Pribatuaren Talde Hitzarmenak onesten diren data horretan eragirik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu ugazaben erakunde guztiek espreski horrela eskatzen dutenean, sindikatuak entzun ondoren, kasuan kasuko Hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketak 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen dute indarra.

“Beste gastu batzuekiko” eta, hala balitz, langile osagarriendako moduluko osagaiek 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dituzte ondorioak.

Langile irakasleen lansariendako ezarri diru-kopuruak, gizarte kargak barne, Administrazioak zuzenean ordainduko ditu, ordainketa delegatuen bidez. Ikastetxeko irakasle eta titularraren arteko lan harremana galarazi gabe.

“Beste gastu batzuekiko” diru-kopuruak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie eta horiek ikasturtea bukatzean justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorrek” osatzen dituzten zenbateko aldakorren banaketa itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Erdi Mailako eta Goi Mailako prestakuntza zikloak, eta baita Gizarte Bermeko programak ere, lanbide heziketako ikastetxe itunduetan lehenago ezartzeak izaera esperimentalak duenez, horien osaera eta finantzatzeko modua erregelamenduz arautu bitartean, hezkuntza administrazioak

behin-behinekoz finkatuko ditu horiek finantzatzeko kopuruak.

3. Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko eskola-unitate bakoitzeko urteroko dirulaguntza 4.659.414 pezetakoa izanen da 1997-98 ikasturtean zehar.

Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko dirulaguntza-araubideari aurreko lerroaldean esleitu zaion fondo publikoetatik datorren finantzaketaren osagarri gisa ikasleengandik hartu beharreko kopurua, arauturiko irakaskuntza kontzeptupean, eskusiboki, 3.537 pezetakoa da ikasle eta hilabeteke, sei hilabetetan zehar, 1998ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte doan epean.

4. Nafarroako Foru Komunitatearen eta bere organismo autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra erantzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko Xedapen Gehigarria betez, 1998/99 ikasturtearen hasieratik aurrera, Haur Hezkuntzako Bigarren Ziklorako gaur egungo dirulaguntza-araubidea beste honek ordeztuko du: hezkuntza-itunei buruzko berariazko araudiak aurreikusten duen banakako hezkuntza-itun partzialak, artikulua honek 1. idazatiak xedaturikoa aplikatu beharrekoa izanik. 1998rako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa hamalagarren xedapen gehigarriak ezarritakoa da.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko derrigorezkoa ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko Banakako itunen araubideari esleitzen zaizkion fondo publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa ikasleengandik hartu beharreko kopurua, eskusiboki arauturiko irakaskuntza kontzeptupean, 3537 pezeta ikasle/hilabeteke da, 1998ko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31 arte.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz zentroek lorturiko finantzaketa modulu ekonomiko "bestelako gastuak" atalari aurre egiteko da, eta, beraz, Administrazioak ez du inolako kopururik ordainduko kontzeptu horretarako.

36. artikulua. Oteiza Fundazioaren Museo Etxea.

"Oteiza Fundazioaren Museo Etxea. Inbertsio eta gastuak" izeneko kontusailari, aipatu Fundazioaren laguntza, zainketa eta inbertsioekin zerikusirik duen edozein gastu aplikatzen ahal zaio.

37. artikulua. Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF).

Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF) garatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak zuzen aplikatzeko beharrezko diren aurrekontu-kontusailak paratu edo/eta gehitzeko, sartzen diren aurrekontu-programa eta gastuen izaera edozein dela ere.

Finantzaketa, beti ere, hurrengo kontusailaren kargura egingo da: 11610-6092-1341; proiektua, 16003; izena, "Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF)".

38. artikulua. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariari dagozkion langile-, jarduera- eta inbertsio-gastuen finantzaketa aurrekontu-kontusail egokiak sortuz egin ahal da. Aipatu kontusailen dotazioa, beti ere, hurrengo kontusailen dauden kreditu eskuragarrien kargura egingo da: 11600-4400-1341; proiektua, 16001; izena, "SODEXNA-rekiko hitzarmena".

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak, arestian esandako gastu eta ordainketak baimendu ahal da eta Ekonomi Zuzendari Nagusiaren aurreko baimena beharko du milioi bat pezeta baino gehiago direnentzako.

39. artikulua. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 100. artikulua aldatu egingo da, Foru Lege hau indarrean sartzen denean. Hona nola geratuko den idatzita:

"100. artikulua. 1. Material ez-inbentariagarriko gastuak, aldian aldikoak eta traktu jarraituko gainerakoak aurreko kontuhartzetik salbuetsita daude, sorburu duten egintza edo kontratuaren eta, hala bada, haien aldaketen hasierako aldiari dagokien gastuaren kontuhartzea egin eta gero.

2. Nafarroako Gobernuak hauxe erabaki ahal du, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposatuta eta Kontuhartzailatza Orokorrak txostena egin ondoren: aurretiko kontuhartzea, betebeharrak edo gastuak sortaraz dezaketzen administrazio-egintzen alde jakinak egiaztatzen mugatuko dela; edo aipatu administrazio-egintzak aurretiko kontuhartzetik jare uztea, egintzen zenbatekoaren zein edukiaren edo izaeraren arabera.

3. Aurreko zenbakian xedatuaren arabera, kontuhartze mugatuaren menpe edo aurretiko kontuhartzetik salbuetsita dauden egintzei osoko kontrola egingo zaie gero Kontuhartzailtza Orokorrak finkatzen dituen auditoria-prozedura edo tekniken bitartez, haien fiskalizazioaren fidagarritasuna eta objektibotasuna bermatzeko eran.

Aurreko lerroaldian esan diren osoko kontuhartzeak egiten dituzten kontuhartzaile delegatuek, txosten idatzia prestatuko dute eta, hala bada, egoki iritzitako ohar eta ondorio guztiak erasota utziko dituzte. Dagokion Departamentuko Kontseilariari bidaliko zaizkio txostenok eta Kontseilariak, hala bada, egoki iritzitako alegazioak egin ahalko ditu hamabost eguneko epearen barruan. Ekonomi eta Ogasun Departamentuari helaraziko zaio gero espedienteak.

Aipatu Departamentuak, egoki irizten badio, Nafarroako Gobernuari eta fiskalizazioak ukitu duen departamentuari emango die fiskalizazioaren emaitzen berri eta, hala bada, beharrezkotzat jotako jarduketak proposatuko ditu baliabide publikoen administrazioa kasu bakoitzean ezar daitezkeen xedapenekin bat etorriko dela ziurtatzeko.

4. Salbuespen gisa, eta espedienteen kopuruak zein arrazoiz ponderatutako bestelako gorabeherak horretarako bide ematen dutenean, laginketa prozedura edo tekniken bidez egin ahalko da egintza, dokumentu edo espedienteen aurreko kontuhartzea, Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposatuta eta Kontuhartzailtza Orokorrak aurretiko txostena eman ondoren, finkatuko duen moduan.

5. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, egintza, dokumentu edo espedienteren baten edozein fiskalizazio-fasetan erabaki dezake horietan derrigorrez aztertu behar diren puntu edo gorabeherak, kasu bakoitzean ezar daitezkeen xedapenak eta fondo publikoen kudeaketaren eraginkortasun eta ekonomia printzipioak betetzen direla bermatzeko.

6. Eskubideen aurretiko fiskalizazioaren ordez, datxekion kontabilitateko arrazoi-hartzea egin ahal izanen da eta Kontuhartzailtza Orokorrak finkatzen dituen geroko egiaztatze-jarduketak ezarriko dira.”

40. artikulua. Nafarroako Enpleguaren Zerbitzua.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari “Nafarroako Enpleguaren Zerbitzua” izeneko kontusaila garatzearen egiten diren gastuen aplikazio zuzenerako behar diren aurrekontu-kontusail guztiak gaitu edo/eta gehitzeko.

VI. TITULUA Kontratazioa

41. artikulua. Kontratazio administratiboaren arloko eskurantzak.

1. Foru Komunitatako Administrazioaren Kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legeko 6. artikulua agintzen duena galarazi gabe, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen Ataleko Buruari egokituko zaio hornidura-espediente txikiak izapidatzea, beti ere horien aurrekontua 2.000.000 pezetatik gorakoa ez bada, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren martxoaren 10eko 49/1997 Foru Aginduak xedatuarekin bat.

Era berean, Kontratazio eta Aseguruen Atalari egokituko zaio Nafarroako Foru Administrazioaren kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legeko 95.1 artikulua dakartzan eginkizunak betetzea.

2. Espediente txikiak agiri hauek baizik ez ditu izanen:

a) Departamentuak egiten duen eskurapen proposamen arrazoituari gastuaren onarpena erantsiko zaio, zehaztasun teknikoak aipatuz, hala bada.

b) Erosi behar diren produktuen hiru edo gehiago hornitzaile egindako kontsulten zerrenda, ahalezkoa denean, eta esleipena justifikatzen duen txostena.

c) Erosketaren faktura, kontratu agiri bezala erabiliko dena.

3. Nafarroako Gobernutik hornidura kontratuak egiteko eskumena jaso duten Kontseilari eta erakunde autonomoen organo eskumendunek espediente txikia erabili ahalko dute, 2.000.000 pezetatik beherako aurrekontua duten ondasunak eskuratzeko.

4. Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria izanen da informazioaren teknologia eta sistemen aktibo informatikoak erostea xede duten kontratuen kontratazio-organoa.

5. Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria izanen da segurtasun zerbitzuak eman eta segurtasun elementuak eskuratzeko xedea duten kontratuen kontratazio-organoa.

6. Garraio zerbitzuak kontratatze eta garraio-jarduerak xede dituzten dirulaguntzak emateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zerbitzuak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

42. artikulua. Zerbitzuen ohiko funtzionamendurako gastu txikiak.

1. Zuzendari Nagusiek, Zerbitzuetako Zuzendariak eta erakunde autonomoetako organo eskudunek beren menpean dauden zerbitzuen funtzionamendurako behar diren gastu eta kontratuak baimentzen ahal dituzte, beti ere, aurrekontu kontsignazioa izanez gero, kontratuen zenbatekoa 500.000tik gorakoa ez denean, Zuzendari Nagusien eta erakunde autonomoetako organo eskudunen kasuan, eta 250.000 pezetatik gorakoa, berriz, Zerbitzuetako Zuzendarien kasuan.

Ez da gastu txikitzat joko altzariak erostea. Era berean, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak erabaki ditzake gastu txikitzat jotzen ez diren ondasunak, eresketa zentralizatukoak izateagatik.

2. Kontratu horiek beharko duten agiri bakarria faktura izanen da.

43. artikulua. Hornitzaileen hautaketa.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak eta erakunde autonomoetako kontratazio-organoen eskudunek lehiaketak antolatu ahalko dituzte ondasun jakin baten hornitzailea hautatzeko.

Kasu horretan, ondasunak enpresa hautatutik eskuratu beharko dituzte zuzenean lehiaketan zehaztu prezio eta baldintzetan, kontratazio espedienterik tramitatu beharrik gabe.

44. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko hornidura kontratuak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hornidurak erosten ahalko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuak buruzko Foru Legeak ezarritako prozeduren arabera, hornidurok kontsumitzeko behar den tresneria mediko-klinikoa esleipendunak lagatu behar duenean.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei eskaintzak eskatuz hamabostean behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

Xedapen gehigarriak

Lehen. 1. 1997an Nafarroako egiazko KPIa 100eko 2,6tik gorakoa den kasuan, aldea zuzenean aplikatuko zaie lantzaiei, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu finkatzeko izaera eta ondorio ekonomikoak.

2. Era berean, pagamendu bakarria ordainduko da, ez finkatzekoa, 1997an sortutako ordainketa osoen gainean kalkulatu. Pagamendua honelakoa izanen da:

a) KPI 100eko 0,5 edo gutxiago desbideratzen baldin bada, pagamenduaren zenbatekoa desbideratzearen portzentaia izanen da.

b) Desbideraketa 100eko 0,6tik 100eko 1era bitartekoa baldin bada, pagamenduaren zenbatekoa 100eko 0,5ekoa izanen da.

c) Desbideraketa 100eko 1etik gorakoa baldin bada, pagamenduaren zenbatekoa kasu horretan 100eko 1ekoa izanen da.

3. Aurreko idaztietan bildutako neurriak Nafarroako Administrazio Publikoen klase pasiboaren pentsioei ere aplikatuko zaizkie, eguneratzeko eskubidearekin, baina pentsioaren eta aipatu den gehikuntzaren baturak ezin izanen du inoiz gainditu Estatuko Aurrekontu Orokorretan Gizarte Segurantzako pentsioetarako ezarri den gehienezko zenbatekoa.

Bigarren. 1. Nafarroako egiazko KPIak, 1998koak, Foru Lege honen 6. artikuluan zehaztutako haunditze portzentaia gaindituz gero, Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lantzaiek, ekitaldi horretarako Foru Lege honen bidez finkatzen dituenak, eguneratzeko dira, ondorioak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, lege testu honen lehenbiziko xedapen gehigarrian ezarritako prozedura eta irizpideak aplikatuz.

2. Nafarroako egiazko KPIak, 1998koak, Foru Lege honen 10. artikuluan zehaztutako haunditze portzentaia gaindituz gero, arestiko idaztietan ezarritako neurriak Nafarroako Administrazio Publikoen klase pasiboaren pentsioei ere aplikatuko zaizkie, eguneratzeko eskubidearekin, baina pentsioaren eta aipatu den gehikuntzaren baturak ezin izanen du inoiz gainditu Estatuko Aurrekontu Orokorretan Gizarte Segurantzako pentsioetarako ezarri den gehienezko zenbatekoa.

Hirugarrena. Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 27. artikuluari gehitu zaion idaztietan berriak, honela idatzirik gelditu den horrek:

“Bidezkoa izanen da, halaber, funtzionarioak eskatuta, eszedentzia berezia deklaratzeko, aurreko idaztietan adierazitako ondorioekin, adineko persona ezin du bat edo hil-hurren dagoen eri bat etxean zaintzeko, pertsona hori familiakoa bada, bigarren graduraino, odolkidetasunez edo ahaideatasunez”.

Laugarrena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren bidez, salbuespen gisa eta Toki Adminis-

trazioko Departamentuak txostena eman ondotik, Udal eta Kontzejuei ondokoak eman ahal izan diezazkien:

a) Zergen Partaidetza Fondoan ohiko transferentziak egiteari dagozkion kontu aurrerakinak, hiruhileko baten zenbatekoaren kontura, ekitaldi ekonomikoaren hurrengo hiruhilekoan itzuli beharrekoak.

Toki entitatearen aurrezki garbiaren, defizitaren eta zor mailaren arabera egoera finantz-ekonomikoa dela eta, ohiz kanpoko neurriak komenigarritzat joko balira, konturako aurrerakina, gehienez ere, bi hilabeteren zenbatekoan ematea ongen litzateke

b) Banaketa kontuan jasota egon eta epemuga iragan duten zorren ordainketa geroratzea.

Aurrerakin eta gerorapen horiek bakar-bakarrik diruzaintzan atezu larria gertatuz gero emanen dira eta, beti ere, entitate eskatzaileak katastro berriak aplikaturik edo landa eta hiri katastroaren aberastasuna gaurkotzeari buruzko Hitzarmenak sinatuta edukiz gero.

Ekonomi eta Ogasun kontseilariak, entitate eskatzailearen egoera ekonomiko-finantzarioa nolakoa den ikusita erabakiko du zein korritu tasa aplikatu.

Bosgarrena. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako, abenduaren 26ko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 19. artikulua aipatzen duen berandutzeagatik korrituaren tipoa, honela ezarriko gelditzen da:

a) Zerga-zorrak direnean, urteko ehuneko 7,5.

Nafarroako Gobernuak, zor publikoaren korritu tasen bilakaeraren arabera, letra honek aipatzen duen korritu tasa berrikusi ahalko du.

b) Gainerako zorren kasuan, legeak ezartzen duen diruaren korritua.

Seigarrena. Hauek dira 1998ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Etxeko isurkinak: 26,60 pezeta/metro kubi-koko.

b) Etxekoak ez diren isurkinak: etxeko isurkinen tarifaren gainean 100eko 25 gehiago, behar balitz, karga kutsatzailearen indizea gehituz.

Zazpigarrena. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera, kooperatiben zerga erregimena arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen arauak, ondotik ematen direnek, honako idazketa hau izanen dute:

Bat. 27. artikulua, 3 zenbakia.

“3. Tokiko zergak.

100eko 95eko hobaria zerga hauen kuotan:

a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskala.

b) Lurralde kontribuzioa, landa izaera duten higiezinaren unitateei dagokien aldetik.”

Bi. 30. artikulua, c) letra.

“c) Tokiko zergak.

100eko 95eko hobaria Jarduera Ekonomikoen Zergari edo Lizentzia Fiskalari dagokion kuotan.”

Hiru. Bigarren Xedapen Gehigarria, b) letra.

“b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan edo Lizentzia Fiskalean:

100eko 95eko hobaria dagokion kuotan.”

Zortzigarrena. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Ondorioak 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162. artikulua 1. zenbakia honako eduki honekin geldituko da idatzirik:

“1. Zerga ondoko tarifa koadroaren arabera eskatuko da:

Kuota:

a) Turismoak:

– 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 2.064 pezeta.

– 8 zaldi fiskaletik 12ra bitarte: 5.809 pezeta.

– 12 zaldi fiskaletik 16ra bitarte: 12.390 pezeta.

– 16 zaldi fiskal baino gehiago: 15.492 pezeta.

b) Autobusak:

– 21 jarleku baino gutxiago: 14.454 pezeta.

– 21 jarlekutik 50 bitarte: 20.652 pezeta.

– 50 jarleku baino gehiago: 25.813 pezeta.

c) Kamioiak:

– 1.000 kiloko karga utila baino gutxiago: 7.235 pezeta.

– 1.000 kiloko karga utiletik 2.999ra bitarte: 14.454 pezeta.

– 2.999 kiloko karga utiletik 9.999ra bitarte: 20.652 pezeta.

– 9.999 kiloko karga utiletik gora: 25.813 peze-
ta.

d) Traktoreak:

– 16 zaldi fiskaletik behera: 3.618 pezeta.

– 16 zaldi fiskaletik 25era: 7.235 pezeta.

– 25 zaldi fiskaletik gora: 14.454 pezeta.

e) Atoigurdi eta erdi-atoigurdiak:

– 1.000 kiloko karga utiletik behera: 3.618
pezeta.

– 1.000 kiloko karga utiletik 2.999ra: 7.235
pezeta.

– 2.999 kiloko karga utiletik gora: 14.454 peze-
ta.

f) Beste ibilgailuak:

– Ziklomotoreak: 521

– 125 c.c.tarainoko motozikletak: 782 pezeta.

– 125 c.c.tatik 250etarainoko motozikletak:
1.293 pezeta.

– 250 c.c.tatik 500etarainoko motozikletak:
2.554 pezeta.

– 500 c.c.tatik 1.000tarainoko motozikletak:
5.107 pezeta.

– 1.000 c.c.tik gorako motozikletak: 10.214
pezeta.

Bederatzigarrena. Jarduera Ekonomikoen
Gaineko Zerga.

1. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak
izanen ditu edozein zergalditan, bai lehena, biga-
rrena, edo hirugarrenean, beti ere aipatu egunetik
aurrera. Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga-
ren sujeta pasiboek tarifen lehen sekzioan sailka-
tutako enpresa jarduerarik hasi badute eta jardue-
ra horretan ari diren langileak hogeitau baina
gutxiago badira, hobaria izanen dute, ondoko tau-
lan ezarritakoaren arabera:

– Lehenengo zergaldia: 100eko 75eko hoba-
ria.

– Bigarren zergaldia: 100eko 50eko hobaria.

– Hirugarren zergaldia: 100eko 25eko hobaria.

2. Langiletzat, enpresarekin lan kontratua
dutenak hartuko dira, kontratu honen izaera edo-
zein izanda, eta enpresa hartan edozein lan egin-
da ere.

Jardueraren titularra ez dainolaz ere langiletzat
hartuko.

3. Langile kopurua irizterakoan, zergaren sor-
tzapen data izanen da kontuan.

4. Hobari honek zerga kuota aldatua ukituko
du, halakorik bada, eta Nafarroako Toki Ogasunei
buruzko, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea-
ren 154. artikulua xedatutakoa aplikatuko da.

5. Langileen kopurua hogeikoa baina handia-
goa bada, zergaldi horretan dagokion hobaria gal-
duko du, eta hala gertatuz gero, baita hurrengoe-
tan ere.

6. Nafarroako Gobernuak konpentsatu eginen
ditu bere osotasunean, hobari hauek direla eta,
Toki Entitateek jasotzez utzitako kantitateak, hala
xedatzen baitu Nafarroako Toki Ogasunei buruz-
ko, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen
58.3.c) artikulua.

Hamargarrena. Toki Entitateentzako konpen-
tsazioak.

Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean
argitaratu eta sei hilabeteko epearen barrenean,
Nafarroako Gobernuak emanen ditu erreglamen-
dusko xedapenak, Toki Entitateei behar diren kon-
pentsazioak egiteko, zeinak Nafarroako Toki Oga-
sunei buruzko, martxoaren 10eko 2/1995 Foru
Legearen 57.2 artikulua ezartzen baititu.

Hamaikagarrena. Hona hemen zein izanen
den 1998 urtean etxebizitza alorreko jarduketetan
aplikagarria izanen den modulu ponderatua:

– 01 eremu geografikoari atxikiriko udalentsat:
103.563 pezeta/m² erabilgarri.

– 02 eremu geografikoari atxikiriko udalentsat:
94.435 pezeta/m² erabilgarri.

Ponderatu gabeko moduluak hauek izanen
dira:

– 01 eremu geografikoarentzat: 99.103 peze-
ta/m². erabilgarri.

– 02 eremu geografikoarentzat: 90.368 peze-
ta/m². erabilgarri.

Salneurri tasatuko etxebizitzetako metro karra-
tu erabilgarriaren gehienezko saltzeko prezioa
143.000 pezeta izanen da 01 eremu geografikoko
udaletan, eta 130.000 pezeta 02 eremu geografi-
kokoetan.

Hamabigarrena. Hezkuntza Sistema Orokorra
Antolatzeari buruzko Lege Organikoaren bedera-
tzigarren xedapen iragankorraren babesean,
1997ko ekitaldian erretiro aurreratua eskatu zuten
irakasleek, borondatezko erretiroaren prima osa-
garria jaso bazuten (1997ko ekitaldirako Nafarroa-
ko Aurrekontu Orokorreari buruzko, urtarrilaren 31ko

1/1997 Foru Legearen 11. artikuluan eta I Eranskinean ezarritakoari jarraikiz aipatu primaren konplementua jasoko dute, prima horren 100eko 2,9 hain zuzen ere, eta erretiro aurreratuengatik emandako kalteordainak izeneko aurrekontu-saietik ordainduko da.

Hamahirugarrena. Dirulaguntzen araubide berezia izanen dute benetan funtzionamenduan diren eremu ez euskalduneko ikastolen ikasgelek, nahiz eta baimenik ez izan edo gela bakoitzeko ezarritako ikasle kopururik ez bete.

Dirulaguntza horiek Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hizkuntza Politikarako Programan helburu horrekin aurreikuitako kontusailaren kargura abonatu dira. 35. artikuluan eta hamalagarren xedapen gehigarrian dagokion hezkuntza mailarentzat adierazitakoa izanen da haien zenbatekoa.

Hamalagarrena. Itundutako ikastetxeen sostengurako fondo publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Honela geratzen dira ezarrita urteko zenbatekoak eta hezkuntza maila nahiz modalitate ezberdinetan itundutako ikastetxeen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoak.

1. Lehen Hezkuntza.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 3.993.693 pezeta (moduluaren % 71,31).
- Gastu aldakorrak: 685.456 pezeta (moduluaren % 12,24).
- Bestelako gastuak: 896.576 pezeta (moduluaren % 16,32).

Urteko zenbatekoa, guztira: 5.600.338 pezeta.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloa.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 4.992.116 pezeta (moduluaren % 72,39).
- Gastu aldakorrak: 798.450 pezeta (moduluaren % 11,58).
- Bestelako gastuak: 1.105.980 pezeta (moduluaren % 16,04).

Urteko zenbatekoa, guztira: 6.896.546 pezeta.

3. Batxilergo Bateratu Balioanitzeko hirugarren maila eta lehenagoko Sekzio Filialetatik sortutako U.B.I.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 6.203.844 pezeta (moduluaren % 73,76).

- Bestelako gastuak: 1.249.677 pezeta (moduluaren % 14,86).

- Gastu aldakorrak: 956.963 pezeta (moduluaren % 11,38).

Urteko zenbatekoa, guztira: 8.410.484.pezeta.

4. Lehen Graduko Lanbide Heziketa titulua lortzeko prestatze ikastaroa.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 7.116.174 pezeta (moduluaren % 72,84).

- Bestelako gastuak: 1.638.317 pezeta (moduluaren % 16,77).

- Gastu aldakorrak: 1.014.920 pezeta (moduluaren % 10,39).

Urteko zenbatekoa, guztira: 9.769.411 pezeta.

5. Bigarren Graduko Lanbide Heziketa.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 6.568.776 pezeta (moduluaren % 70,06).

- Bestelako gastuak: 1.863.749 pezeta (moduluaren % 19,88).

- Gastu aldakorrak: 944.067 pezeta (moduluaren % 10,07).

Urteko zenbatekoa, guztira: 9.376.592 pezeta.

6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Bigarren Zikloa.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 6.203.844 pezeta (moduluaren % 73,54).

- Bestelako gastuak: 1.249.677 pezeta (moduluaren % 14,81).

- Gastu aldakorrak: 982.333 pezeta (moduluaren % 11,64).

Urteko zenbatekoa, guztira: 8.435.854 pezeta.

7. Hezkuntza Berezia (derrigorrezko eta doako mailak)

I. Oinarrizko eta lehen hezkuntza:

I.1. Psikikoak.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 3.993.693 pezeta (moduluaren % 45,15).

- Bestelako gastuak: 921.189 pezeta (moduluaren % 10,41).

- Langileria osagarria (logopedak, fisioterapeutak, psikologo-pedagogoak, hezkuntzako laguntzaile teknikoak eta gizarte-langilea), direnen arabera: 3.373.213 pezeta (moduluaren % 38,13).

- Gastu aldakorrak: 558.226 pezeta (moduluaren % 6,31). Urteko zenbatekoa, guztira: 8.846.321 pezeta.

I.2. Autistak.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 3.993.693 pezeta (moduluaren % 49,01).
- Bestelako gastuak: 921.189 pezeta (moduluaren % 11,31).
- Langileria osagarria (logopedak, fisioterapeutak, psikologo-pedagogoa, hezkuntzako laguntzaile teknikoak eta gizarte-langilea), direnen arabera: 2.675.061 pezeta (moduluaren % 32,83).
- Gastu aldakorrak: 558.226 pezeta (moduluaren % 6,85).

Urteko zenbatekoa, guztira: 8.148.169 pezeta.

II. Lanbide Heziketa Berezia, Egitekoen Ikaskuntza modalitatea.

- Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne: 8.047.327 pezeta (moduluaren % 52,63).
- Bestelako gastuak: 1.249.677 pezeta (moduluaren % 8,17).
- Langileria osagarria (logopedak, fisioterapeutak, psikologo-pedagogoa, hezkuntzako laguntzaile teknikoak eta gizarte-langilea), direnen arabera: 4.920.443 pezeta (moduluaren % 32,18).
- Gastu aldakorrak: 1.072.223 pezeta (moduluaren % 7,01).

Urteko zenbatekoa, guztira: 15.289.670 pezeta.

8. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa.

- Irakasleen soldatak, gizarte zamak barne: 3.993.693 pezeta (moduluaren % 72,50)
- Bestelako gastuak: 864.931 pezeta (moduluaren % 15,70).
- Gastu aldakorrak: 649.670 pezeta (moduluaren % 11,79)

Urteko zenbatekoa, guztira: 5.508.294 pezeta.

Hambosgarrena. Maisutza Diplomaturako ikasketetako praktikak irakasten diren ikastetxeetako maisu-maistrek arauz zehaztuko diren kalteordainak jasoko dituzte.

Hamaseigarrena. Nafarroako Gobernuak bere ekimenez edo Udalek edo Kontzejuek eskatuta, halakorik balitz, elkarren ondoko Oinarrizko Osasun Barrutian diren Distritu eta Ataletako atxikipean aldatu ahal izanen dituzte, hori egitea aholkatzen duten osasun-laguntzazko inguruabarrak gertatzen badira.

Edozein kasutan ere, aldatzeko espedientean agertaraziko dira Oinarrizko Barrutietako ordezkari organoaren, halakorik balitz, aurretiko derri gorrezko entzunaldia, baita eskualde-demarkazioaren aldakuntzak ukitutako udal edo kontzejuetako ordezkari organoena ere.

Hamazazpigarrena. Beren ordainsariak Ordainsariak Zehazteko Sistemaren (O.Z.S.) bidez jasotzen dituzten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun langileek 1998an bidea izanen dute, beti ere arauz finkatuko diren baldintzetan, aipatu Organismo Autonomo horretara atxikiriko langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak ezarritako araubidea lanaldi partzialean hautatzeko.

Hemezortzigarrena. 1. Indargabe uzten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araudia arautzen zuen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 10. artikulua 7. atala.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araudia arautzen zuen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen Estamentu eta Espezialitateen Eranskinari Foru Lege honetako II. Eranskinean azaltzen diren izendapean gehituko zaizkio, eta eranskin horretan finkatzen diren kodeak emanen zaizkie.

Hemeretzigarrena. Nafarroako Errepideen Babesari buruzko urriaren 10eko 11/1986 Foru Legearen 23.1 artikulua a) idazatia aldatzen da. Honela izanen da hemendik aurrera:

“23. artikulua, 1. a) Herrilan zuzendari nagusia, 5.000.000 milioi pezeta artekoa”.

Hogeigarrena. 1998 urterako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Aseguru-Sarientzako eta Kalte Larrien Laguntzen Arau Erregulatzailako 12. artikulua aldatzen da, eta berau honela idatzirik geldituko da:

“2. artikuluko b) letran aurreikusten diren laguntzak honelakoak izanen dira: aseguruaren kostuaren dirulaguntza, Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Estatuko Erakundeak xede horrekin ematen duenaren arabera, beti ere bi dirulaguntzen baturak aseguruaren kostuaren 100eko 80 baino gehiago joko ez duelarik.”

Hogeita batgarrena. 1998ko Aurrekontua betetzearen ondorioetarako, indargabe gelditzen da Nekazaritza finantzazioaren gaineko lege lerruneko xedapenei buruzko Testu Birbildua onartzen duen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileko V. Tituluko 14. artikuluko bigarren lerroaldea.

Hogeita bigarrena. 1998ko ekitaldirako, indargabe gelditzen dira lurzatiaren kontzentrazioaren prozesuen ondorioz eraldaturiko alorrak berrosatzeko-inbertsioen aldeko laguntzak. Laguntza hauek martxoaren 16ko 2/1992 Foru Legearen 3. artikuluko d) zatiak arautzen zituen, hain zuzen ere, Nekazaritza Finantzazioaren gaineko lege lerruneko xedapenei buruzko Testu Birbildua onartzen zuen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileko II. eta III. Tituluak aldatzen zituena.

Hogeita hirugarrena. Nekazaritza Finantzazioaren gaineko lege lerruneko xedapenei buruzko Testu Birbildua onartzen zuen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileko 4. eta 13. artikulua aldatzen dira, eta honela idatzirik geldituko dira:

“4. artikulua. Onurak:

1. Nafarroako Gobernuak ondoko onurak eman ahal izanen ditu:

a) 3. artikulua a), b) eta d) idazatietan azaltutako inbertsio eta neurriei, arauz finkatuko dena, gehienez ere kapitalaren 100eko 25eko dirulaguntza zuzena, eta gainerakoa inbertsio horiek finantzatzeko lortu diren mailegu edo kredituetako interesen 8 puntura bitartean, gehienez ere, eta sekulan ez 15 urte baino gehiagoko epean. Milioi eta erdi pezeta baina gutxiagoko inbertsioetan, interesen bonifikazioaren ordezkari kapitalaren zuzeneko dirulaguntza eman ahal izanen da. Aipatu dirulaguntza horiek ezin izanen dituzte gaintuko (EEE) 2328/1991 Erregelamenduan eta erregelamendu hori osatzen edo ordeztzen duten gaineko xedapenetan ezarritako mugak.

b) 3. artikulua c) idazatian azaldutako inbertsioei, arauz zehaztuko direnak, kapitalaren dirulaguntza gisa edo horren balioidea inbertsio horiek finantzatzeko lortu diren mailegu edo kredituetako interesen 8 puntura arte ordainduz, gehienez ere, eta sekulan ez 15 urte baino gehiagoko epean.

c) 3. artikulua e) idazatian azaldutako neurriei, arauz finkatuko direnak, nola eta lortutako mailegu edo kredituetako interesen lau puntura bitarteko dirulaguntza emanez.

2. Behin beharapena aplikatu ondoren, geratzen diren mailegu edo kredituek ez dute 100eko 3ko interes tasa gaintuko.”

“13. artikulua. Onurak.

Aurreko artikulua aipatzen dituen galeretatik heldu diren gastu eta inbertsioen finantzaziorako ondoko onurak jaso ahal izanen dira:

Xede hori duten eta hogeitaz urte baino epe laburragoko maileguen interes tasen zortzi puntu arteko dirulaguntza. Behin beharapena aplikatu ondoren, geratzen diren mailegu edo kredituek ez dute 100eko 3ko interes tasa gaintuko”.

Hogeita laugarrena. 1998ko Aurrekontua betetzearen ondorioetarako, indargabe gelditzen da Nekazaritza finantzazioaren gaineko lege lerruneko xedapenei buruzko Testu Birbildua onartzen duen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileko 15. artikuluko 2. puntuaren a) letran xedatutakoa.

Hogeita bosgarrena. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Aseguru-Sarientzako eta Kalte Larrien Laguntzen Arau Erregulatzailearen Titulua aldatzen da; hemendik aurrera izenburu hau izanen du: “Nekazaritza eta Abeltzaintzako Aseguru-Sarientzako Laguntzen Arau Erregulatzailea”.

Era berean, aipatu arauaren 1. artikulua aldatzen da eta honela idatzirik geldituko da:

“Arau honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean nekazaritza ondasunak dituzten eta ondasun horien gaineko aseguruak egiten dituzten nekazari eta abeltzaintzako laguntzak arautzea”.

Hogeita seigarrena. Foru Lege hau indarrean sartzen denetik, Nafarroako nekazaritza ustiategiak eta nekazari gazteek, bai eta oihanerako baliatzen diren landa-azalerek ere, gutxienez, Estatuko legeek nekazaritza ustiategiak modernizatzeari buruz ezartzen dituen onura fiskal berdinak izanen dituzte, eta kasu eta termino berdinetan.

Nafarroako Gobernuak arauz ezarri ahal izanen ditu aurreko atalean xedatutakoa garatzeko behar diren neurriak.

Hogeita zazpigarrena. Ahalmena ematen zaio Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari industrialdeetan edo turismo azpiegiturretan egindako inbertsioak finantzatzeko toki entitatei eman zaizkien diru-aurrerakinak itzultzeko modua eta baldintzak aldatzeko, baldin eta itzulketa horiek sortutako urteko karga finantzarioak gaintzen badu hari aurre egiteko kasuan kasuko toki entitateak duen gaitasuna.

Aldaketa horren beharra edo komenentzia eta diru-aurrerakin horiek itzultzeko modua eta baldintzen finkatzea, kasu guztietan, etorkizunerako bideragarritasun plan batean oinarrituko da. Aipatu plana toki entitatearekin hitzartuko da eta Toki Administrazio Departamentuak berretsi beharko du, kasuan kasuko toki entitatearen gaitasun ekonomikoa aintzat hartuta.

Hogeita zortzigarrena. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak bere aurrekontuen kargura eginen ditu Lekunberri eta Alkaiaga (Lesaka) industrialdeak erabat urbanizatzeko eta hornitzeko behar diren lan guztiak. Bi horiei dagozkien lurzati eskuragarriak "Navarra de Suelo Industrial, S.A." kapital publikoko sozietateari transferitu zaizkio honezkeru.

Hogeita bederatzigarrena. Nafarroako Gobernuak arreta berezia egingo dio sare publikoaren DBHko aniztasuna eta aurreaniztasunaren tratamenduari, bertan eskolatzen direlako hezkuntza beharizan bereziak, aldi baterakoak zein iraunkorrak, dituzten ikasle gehienak.

Horretarako, Orientazio Departamentuari atxikitako irakasleez hornituko dira Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroak 1998an. Horiek arduratuko dira aniztasunari arreta egiteko diseinatu plan bereziaren plangintzaz eta praktikan jartzeaz. Dotazio horren kopurua finkatuko da zehaztasun horiek dituzten ikasleen kopuruaren arabera, edota ezarriko diren lerroen kopuruaren arabera.

Aniztasunaren eta aurreaniztasunaren tratamendua egiten duten ikastetxe pribatuak ere jasoko dituzte beharrezko baliabideak, txosten teknikoekin bat, aurreko lerroaldean eta baldintzetan aipatuaren arabera.

Hezkuntza itunak aldatu egingo dira, egokitzen denaren arabera, halako moldez non hezkuntza-beharizan bereziak dituzten ikasleen eta gutxiengo etnikoetakoen eskolatzean benetako laguntza ematen duten ikastetxeei dagokien modulua gehitu egingo den.

Horretarako, laugarren kontzeptu bat sortuko da moduluen osakeran, hura gehitze aldera, eta hezkuntza-beharizan bereziei arreta egiten dien ikastetxeei baino ordainduko ez zaiena.

Hezkuntza-beharizan bereziak dituzten ikasleei eta gutxiengo etnikoetakoei bere eskualdean arreta egiten dien ikastetxeak behar diren gizabaliabide espezializatuez hornituko dira.

Hogeita hamargarrena. Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuak Transferentzien Junta sortu zuen. Hala eskatu duten edo beren beregi hala eska dezaten Parlamentuko Talde guztiek ere izango dute parte Nafarroako Gobernuak aipatu Juntan duen ordezkartzan. Nafarroako Gobernuaren ordezkartzak Estatuko zerbitzuen transferentziari oniritzia emateko beharrezko izango da, edonola ere, Parlamentuko Taldeen ordezkarien gehiengoaren aldeko botoa, Parlamentuko Talde bakoitzak zenbat Foru Parla-

mentari, hainbat boto izango dituelarik ondorio horietarako.

Hogeita hamaikagarrena. Foru Komunitatean bidaiarien garraioa arautzeko legerik ematen ez den bitartean, Nafarroako Gobernuak hauxe arautuko du: bidaiarien erabilera orokorrerako arauzko zerbitzu iraunkorren titular diren enpresek bidaiarien erabilera berezarako arauzko garraio-zerbitzuak emateko lehentasuna izan dezaketen kasuak. Kasu horiek ezarriko dira trafiko edo ibilbideak bat etortzearen eta emakiden oreka ekonomikoari eusteko irizpideen arabera, Garraio Kontseiluari entzun ondoren.

Hogeita hamabigarrena. Nafarroako Gobernuaren zerbitzupeko telekomunikazio sistemen elkar egokitzea eta integrazioa bermatzeko asmoz, Nafarroako Gobernuko Departamentuek egin asmo dituzten sistemen horniduraren eta telekomunikazio zerbitzuen kontratazioek eta frekuentzien eskariek hauxe beharko dute: aurretik emandako bideragarritasun txosten aldekoa, Herrilan, Garraio eta Telekomunikazio Departamentuko Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak emandakoa.

Hogeita hamahirugarrena. Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, gehienez ere: Nafarroako nekazari eta abeltzainei arreta egiteko Eskualde Plana, aipatu zerbitzuok ahalik eta landagune gehienetara hurbiltzea aurreikusiko duena.

Hogeita hamalagarrena. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio, Nafarroako Foru Erauztza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. artikuluen babespean, sei hilabete epean, gehienez ere, egin eta onetsi dezan Foru Dekretu Legegile bat, Nekazaritza Finantzaketaren arloan indarrean diren legezko xedapenen testu birbildearekin.

Hogeita hamabosgarrena. Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, gehienez ere: Nafarroako Nekazaritza Ganbara arautzeko eta tokian tokiko nekazaritza ganbarak deusezteko Foru Lege proiektua, aipatu Ganbarako kideak hautatu eta berritzeko prozesua aurreikusiko duena.

Hogeita hamaseigarrena. Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, gehienez ere: Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoa (1997-2000).

Hogeita hamazazpigarrena. Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, gehienez ere: Nafarroako Oihan Plana.

Hogeita hamazortzigarrena. Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean, gehienez ere: "Gizarte eta Osasun Koordinaziorako Plana", hauexek aurreikusiko dituen: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko koordinaziorako programa, ekinbide, proiektu eta ekintzak, gizarte eta osasunaren alorrean, adimen osasunaren esparruan, batez ere.

Hogeita hemeretzigarrena. Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, gehienez ere: Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektua, Osasunari buruzko Foru Legearekin eta Lan Arriskuei aurrea hartzeari buruzko Legearekin bat, haiek garatu eta gure beharrian bereziei egokitzeko.

Aldi berean, Nafarroako Gobernuak, 1998ko lehen seihilekoan, Nafarroako Lan Osasunari buruzko Plana landu eta Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio, helburuak finkatu, horiek erdies-teko interesa dutenen arteko lankidetzaren bidez ebaki eta Nafarroako gizarteak lan-osasun eta segurtasunari dagozkionetan dituen beharrazinei erantzuteko.

Gizarteari eta gizakiei sortzen zaien arazo larria ekidin eta arintzeko asmoz, 1998. urtean koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatuko dira Nafarroako Lan Osasunari buruzko Planak aurreikusitako giltzarri-ekintzak, eta horiek garatu eta abiaraziko direla bermatuko da.

Berrogeigarrena. 1. Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak emango ditu, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren 10001 Proiektuko "Gizarte ekimeneko zentroetako inbertsioen programa" kontusailaren kargura, gizarte-ekimeneko zentroetako eraikin berriak egiteko inbertsioetarako, hurrengo baldintzak betetzen direnean, beti ere:

a) Zentroek, eskualde mistoko arrazoi soziolinguistikoak direla-eta, eskolatzeko beharrazinei aurre egiteko lokal nahikorik ez izatea aurretik.

b) Itunpeko eta diruz lagundutako zentroak behar dute izan, Haur Hezkuntzan, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak besterik ematen ez dituztenak, eta aipatu mailerako inbertsioak erabili dituztenak.

2. Dagokion deialdian finkatuko dira onuradunek izan behar dituzten gainerako betebeharrak, dirulaguntzaren zenbatekoa, eta hori emateko irizpideak eta lehentasunak.

Azken xedapena

Foru Lege honek 1998ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

1998. Bigarren Iraskuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioak, Bigarren Iraskuntzako Katedradun izaera dutenak; Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Arte Plastiko eta Diseinu Katedradun izaera dutenak.

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	1.092.472	1.104.543	1.104.543	1.104.543	1.113.598	1.113.598	1.113.598	1.124.160
ADINA 63 URTE	1.125.669	1.125.669	1.125.669	1.136.230	1.136.230	1.136.230	1.146.793	1.185.957
ADINA 62 URTE	1.146.793	1.146.793	1.158.866	1.158.866	1.201.116	1.281.090	1.376.153	1.487.813
ADINA 61 URTE	1.169.428	1.178.481	1.231.293	1.317.304	1.418.403	1.537.610	1.674.922	1.825.816
ADINA 60 URTE	1.226.768	1.312.777	1.412.367	1.530.064	1.667.379	1.828.835	2.008.398	2.008.398

1998. Bigarren Iraskuntzako Irakasleen kidegoko, Musika eta Eszena Arteetako Irakasleen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen Kidegoko Funtzionarioak.

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	1.125.830	1.138.270	1.138.270	1.138.270	1.147.600	1.147.600	1.147.600	1.158.486
ADINA 63 URTE	1.160.041	1.160.041	1.160.041	1.170.925	1.170.925	1.170.925	1.181.811	1.181.811
ADINA 62 URTE	1.181.811	1.181.811	1.194.250	1.194.250	1.194.250	1.206.690	1.251.786	1.338.867
ADINA 61 URTE	1.205.135	1.217.576	1.217.576	1.217.576	1.285.995	1.377.743	1.485.039	1.610.994
ADINA 60 URTE	1.217.576	1.217.576	1.281.332	1.371.523	1.478.817	1.603.220	1.749.390	1.921.997

1998. Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko edo Arte plastiko eta Diseinuko Lantegi Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioak

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	923.160	931.245	931.245	931.245	937.984	937.984	937.984	946.070
ADINA 63 URTE	947.419	947.419	947.419	954.157	954.157	954.157	963.589	963.589
ADINA 62 URTE	963.589	963.589	971.677	971.677	971.677	1.022.888	1.084.882	1.160.351
ADINA 61 URTE	979.762	987.848	987.848	1.045.799	1.114.530	1.194.043	1.287.033	1.396.195
ADINA 60 URTE	987.848	1.043.104	1.110.488	1.188.652	1.281.642	1.389.456	1.516.139	1.665.731

1998. Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioak

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	939.022	946.277	946.277	946.277	954.986	954.986	954.986	963.694
ADINA 63 URTE	1.020.297	1.020.297	1.020.297	1.027.553	1.027.553	1.027.553	1.037.712	1.037.712
ADINA 62 URTE	1.037.712	1.037.712	1.046.421	1.046.421	1.046.421	1.056.581	1.095.766	1.162.528
ADINA 61 URTE	1.055.129	1.063.836	1.063.836	1.063.836	1.120.439	1.193.007	1.277.184	1.377.327
ADINA 60 URTE	1.063.836	1.063.836	1.117.537	1.190.103	1.272.831	1.371.523	1.486.178	1.621.154

II. ERANSKINA. ESTAMENTUAK ETA ESPEZIALITATEAK

A. OSASUN ARLOKO ESTAMENTUAK.

ESTAMENTUAK		ESPEZIALITATEAK		IZENDAPENAK	
KODEA	IZENA	KODEA	IZENA	KODEA	IZENA
A.1	FAKULTATIBO ESPEZIALISTAK	A. 1.1	(OFIZIALKI EZAGUTUTAKOETAKO BAKOITZA)	A.1.1.1.	ZERBITZUBURUA
				A.1.1.2	ATALBURUA
				A.1.1.3	ARDURADUN KLINIKOA
				A.1.1.4	ONDOKOA
				A.1.1.5	AYUDANTE
				A.1.1.6	BARRUTIKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA
				A.1.1.7	KUPOKO ETA BARRUT. FAKULT. ESP.
				A.1.1.8	PSIKIATRA
				A.1.1.9	PEDIATRA O.O.L.T
A.2.	OSASUN ARLOKO BESTELAKO FAKULTATIBOAK	A.2.1	ALBAITARITZA	A.2.1.1	ALBAITARIA
				A.2.1.2	ALBAITARI IKUSKATZAILEA
				A.2.1.3	ALBAITARI ONDOKOA
				A.2.1.4	OSASUN PUBLIKOKO IKUSKATZAILEA
		A.2.2	FARMAZIA	A.2.2.1	BOTIKARIA
				A.2.2.2	BOTIKARI IKUSKATZAILA
				A.2.2.3	OSASUN PUBLIKOKO BOTIKARIA
				A.2.2.4	BOTIKARI ZERBITZUBURUA
				A.2.2.5	MIKROBIOLOGIA ATALBURUA
		A.2.3	BIOLOGIA	A.2.3.1	BIOLOGO KLINIKOA
		A.2.4	PSIKOLOGIA	A.2.4.1	PSIKOLOGO KLINIKOA
		A.2.5	FISIKA	A.2.5.1	FISIKARI KLINIKOA
				A.2.5.2	FISIKARIA
		A.2.6	MEDIKUNTZA	A.2.6.1	MEDIKUA
				A.2.6.2	O.O.L.T.KO MEDIKUA
				A.2.6.3	MEDIKU IKUSKATZAILEA
				A.2.6.4	PROGRAMETAKO MEDIKU ONDOKOA
				A.2.6.5	OSASUNEGO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
				A.2.6.6	LAN OSASUNEGO TEKNIKARIA
				A.2.6.7	INGURUGIROKO TEKNIKARIA
				A.2.6.8	GOI MAILAKO TEK., EPIDEMIOLOGOA
				A.2.6.9	MEDIKUNTZAKO GOI MAILAKO TIT.
				A.2.6.10	LAN MEDIKUNTZAKO GOI MAILAKO TIT.
				A.2.6.11	OSASUNEGO GOI MAILAKO TEK.
				A.2.6.12	L.Z.A.KO MEDIKUA
				A.2.6.13	L.Z.B.KO MEDIKUA
				A.2.6.14	TUTERAKO OSP. LARRIALDI ATALBURUA
				A.2.6.15	MEDIKU ZERBITZUBURUA
				A.2.6.16	EPIDEMIOLOGOA
				A.2.6.17	EPIDEMIOLOGIAKO GOI MAILAKO TIT.
				A.2.6.18	LARRIALDIETAKO MEDIKU ONDOKOA
		A.2.7	AHO-HORTZETAKO OSASUNA	A.2.7.1	ODONTOLOGOA
				A.2.7.2	KUPO ETA ESKUALDEKO ESTOMAT.
		A.2.8	KIMIKA	A.2.8.1	KIMIKARIA
		A.2.9	GOI MAILAKO TITULUDUNAK	A.2.9.1	PUNTU KRITIKOETAKO GOI MAILAKO TIT.
				A.2.9.2	OSASUN PUB. GOI MAILAKO TEK.
				A.2.9.3	GOI MAILAKO TIT. ONDOKOA
A.3	DIPLOMADOS SANITARIOS	A.3.1	ERIZAITZA	A.3.1.1	O.L.T.
				A.3.1.2	O.L.T.-E.D.U.
				A.3.1.3	O.O.L.T.KO O.L.T.-E.D.U.
				A.3.1.4	O.L.T. BISITARIA
				A.3.1.5	O. PSIKIATRIKOKO ERIZAITZA BURUA
				A.3.1.6	ERDI MAILAKO TEK. OSASUN HEZ.
				A.3.1.7	LOGOPEDA

		A.3.1.8 PRAKTIKANTEA A.3.1.9 KUPO ETA ESKUALDEKO PRAKTIK.
	A.3.2 OBSTETRIZIA ETA GINEGOLOGIA	A.3.2.1 EMAGINA A.3.2.2 KUPO ETA ESKUALDEKO EMAGINA A.3.2.3 EMAGIN TITULARRA A.3.2.4 BARRUTIKO EMAGINA A.3.2.5 O.L.T. EMAGINA
	A.3.3 FISIOTERAPIA	A.3.3.1 FISIOTERAPEUTA A.3.3.2 O.L.T. FISIOTERAPEUTA A.3.3.3 BARRUTIKO FISIOTERAPEUTA
	A.3.4 PODOLOGIA	A.3.4.1 PODOLOGOA
	A.3.5 LAN BIDEZKO TERAPIA	A.3.5.1 LAN BIDEZKO TERAPEUTA
A.4. OSASUN TEKNIKARIAK	A.4.1 RADIOLOGIA	A.4.1.1 E.T.E.
	A.4.2 LABORATEGIA	A.4.2.1 L.T.E. A.4.2.2 L.L.T.
	A.4.3 ANATOMIA PATOLOGIKOA	A.4.3.1 A.P.T.E.
	A.4.4 DIETETIKA	A.4.4.1 D.T.E.
	A.4.5 MEDIKUNTZA NUKLEARRA	A.4.5.1 M.N.T.E.
	A.4.6 ORTOPIEDIA	A.4.6.1 ORTOPEDIKO TEKNIKARIA
	A.4.7 ERRADIOTERAPIA	A.4.7.1 E.T.T.E.
A.5 E.T.T.E.	A.5.1 OSASUN ARLOA	A.5.1.1 HEZITZAILEA A.5.1.2 OSASUN HEZITZAILEA
A.6 OSASUN LAGUNTZAILEAK	A.6.1 ERIZAINZTA	A.6.1.1 KLINIKAKO LAGUNTZAILEA A.6.1.2 ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA A.6.1.3 OSASUN LAGUNTZAILEA A.6.1.4 OSASUN LAGUNTZAILEA A.6.1.5 LABORATEGIKO LAGUNTZAILEA A.6.1.6 FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA
	A.6.2 LAN BIDEZKO TERAPIA	A.6.2.1 LAN BIDEZKO MONITOREA
	A.6.3 ORTOPIEDIA	A.6.3.1 ORTOPEDIKO LAGUNTZAILEA
	A.6.4 ZAINKETA ETA GARBIKETAKO ARDURADUNA	A.6.4.1 Z.G.A. A.6.4.2 Z.G.A. ARDURADUNA A.6.4.3 AUTOPSJETAKO Z.G.A.
A.7 ZAINDARIAK	A.7.1 ZAINDARIA	A.7.1.1 ZAINDARIA A.7.1.2 ZAINDARIA A.7.1.3 ZAINDARI ARDURADUNA A.7.1.4 BILTEGIKO ZAINDARIA A.7.1.5 AUTOPSJETAKO ZAINDARIA A.7.1.6 KIROFANOKO ZAINDARIA A.7.1.7 O.L.T.KO ZAINDARIA
A.8 LAGUNTZA JARRAIKO OSASUN DIPLOMATUAK	A.8.1 ERIZAINZTA	A.8.1.1 ASTEBURUKO O.L.T.

**1998 EKITALDIRAKO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO FORU LEGE PROIEKTUKO
KONTABILITATE LERROETAN SARTURIKO ALDAKETAK**

Enm. zk.	Or.	Departamentua	Programa	Proiektua	Kontusailaren azalpena	Lerro zenbakia	Milaka pezetatan
In voce 6	165	1 Ekonomia eta Ogasuna	14 Ondarearen Kudeaketa eta Kontratazioa	14002 Ondare higiezinaren eta eskubideen kudeaketa	Ondare higiezinaren instalazio berrirako, birmoldaketarako eta janzteko obrak	07060-6	75.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontuaren kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza-politika	Zorpetzearen korrituak	06510-6	-75.000
163	177	2 Toki Administrazioa	11 Lankidetzaren juridikoa eta administratiboa	11000 Lankidetzaren juridikoa eta administratiboa	Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuen sustapena	BERRIA	12.100
	177	2 Toki Administrazioa	11 Lankidetzaren juridikoa eta administratiboa	11000 Lankidetzaren juridikoa eta administratiboa	Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuen sustapena	09690-7	-12.100
165	178	2 Toki Administrazioa	12 Koordinazio ekonomikoa	12000 Koordinazioa, Lankidetzaren eta Aholkularitza Ekonomiko Finantzieroa	Iruñeko Udalaren Gutun Araubidea	09820-9	138.378
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontuaren kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza-politika	Zorpetzearen korrituak	06510-6	-138.378
169	169	2 Toki Administrazioa	12 Koordinazio ekonomikoa	12001 Ohiko transferentzien fondoa	Ohiko transferentzien fondo orokorra	09880-2	2.202.600
	179	2 Toki Administrazioa	12 Koordinazio ekonomikoa	12002 Udalek Estatuaren eta beste entitateen dirusarreretan parte hartzea	Udalentzako transferentziak, itundutako zerga berriak direla-eta	09920-5	-1.202.600
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontuaren kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza-politika	Zorpetzearen korrituak	06510-6	-1.000.000
182	182	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	00 Zuz. eta Zerb. Nagusiak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	00000 Zuz. eta Zerb. Nagusiak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	Idazkaritza Teknikoa	—	—
	182	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	00 Zuz. eta Zerb. Nagusiak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	00000 Zuz. eta Zerb. Nagusiak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	Laguntza Juridiko eta Administrazioaren Zer.	—	—
188	184	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	10 Lurralde plangintza eta hiri-plangintza	10000 Lurralde plangintza eta hiri-plangintza	Hiri-plangintzarako dirulaguntzak	90003-0	10.000
	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Eremu endekatuak bereoneratzea	90037-4	-10.000
203	186	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Ingurugiro heziketa programetzako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jardueretarako dirulaguntzak	11390-9	10.000
	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Eremu endekatuak bereoneratzea	90037-4	-10.000

Enm. zk.	Or.	Departamentua	Programa	Proiektua	Kontusailaren azalpena	Lerro zenbakia	Milaka pezetatan
208	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Indarretxe txikientzako kalteordaina, emari ekologikoei egokitzeko	11440-9	20.000
	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Eskualde endekatuak bereoneratzea	90037-4	-20.000
209	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Orkoien-Cordovilla lerroa aldatzea	11500-6	20.000
	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Eskualde endekatuak bereoneratzea	90037-4	-20.000
210	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Kutsadurari aurrea hartzea eta zuzentzea	11510-3	40.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza Politika	Zorpeizearen korrituak	06510-6	-40.000
211	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Naturaguneen mantenimendua eta habitata hobetzea	11590-1	50.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza Politika	Zorpeizearen korrituak	06510-6	-50.000
In voce 8	188	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Naturaren interpretazio zentroak (FEOGA, 5b)	93008-7	50.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza Politika	Zorpeizearen korrituak	06510-6	-50.000
216	187	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Naturaguneak babesteko hitzarmena (San Cristóbal eta abar) eta ibatak bereoneratzea	11730-0	40.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza Politika	Zorpeizearen korrituak	06510-6	-40.000
In voce 9	188	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Dirulaguntzak eta jarduketak Oihan planaren proiektua	BERRIA	926.300
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Basoak zaindu eta garatzeko dirulaguntzak	12010-7	-119.300
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Basoak zaindu eta garatzeko dirulaguntzak	12020-4	-237.000
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Birbasotzea, 5b helburuko eskualdean	93026-5	-150.000
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Birbasotzea	93027-3	-200.000
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Higadura zuzentzea	93010-9	-100.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003 Finantza Politika	Zorpeizearen korrituak	06510-6	-120.000
	188	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000 Ingurugiroaren Kudeaketa	Dirulaguntzak eta jarduketak Oihan planaren proiektua	BERRIA	926.300
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Basoak zaindu eta garatzeko dirulaguntzak	12010-7	-119.300
	189	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30100 Baso antolamendua	Basoak zaindu eta garatzeko dirulaguntzak	12020-4	-237.000

Enm. zk.	Or.	Departamentua	Programa	Proiektua	Kontusailaren azalpena	Lerro zenbakia	Milaka pezetatan
237	188	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000	Ingurugiroaren Kudeaketa	berria	1.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003	Finantza Politika	06510-6	-1.000
245	188	3 Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	30 Ingurugiroaren Kudeaketa	30000	Ingurugiroaren Kudeaketa	BERRIA	1.000
	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzazkoa	12003	Finantza Politika	06510-6	-1.000
247	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10000	Programaren jardura orokorrak	12680-6	10.000
	156	0 Lehendakaritza eta Barme	52 Suak izaltzea eta salbamendua	52002	Plan Zuzentzailea betetzea	05060-5	-10.000
In voce 11	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10000	Programaren jardura orokorrak	94005-8	100.000
	175	1 Ekonomia eta Ogasuna	30 Estatuarekiko hitzarmena	30000	Estatuarekiko hitzarmena	09140-9	-100.000
In voce 12	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10001	Eraikuntzak eta Ekipamendua	94001-5	100.000
	202	4 Hezkuntza eta Kultura	52 Ondare historikoa	52000	Ondare historikoa	14520-7	-100.000
In voce 13	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10001	Eraikuntzak eta Ekipamendua	12740-3	100.000
	160	1 Ekonomia eta Ogasuna	10 Dirección y Servicios Generales de Economía	10000	Ekonomi Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	05960-2	-100.000
252	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10001	Eraikuntzak eta Ekipamendua	94017-1	24.000
	202	4 Hezkuntza eta Kultura	52 Ondare historikoa	52000	Ondare historikoa	14520-7	-24.000
256	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10001	Eraikuntzak eta Ekipamendua	BERRIA	300.000
	242	6 Herritan, Garraio eta Komunikazioak	20 Bide sarea handitzea	20000	Programaren jardura orokorrak	96012-1	-300.000

Enm. zk.	Or.	Departamentua	Programa	Proiektua	Kontusailaren azalpena	Lerro zenbakia	Milaka pezetatan
266	192	4 Hezkuntza eta Kultura	10 Eskolatzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza-maila guztietan	10002 Bekak eta laguntzak	Goi tituludun berrientzako bekak Komunitatek at espezializatzeke	BERRIA	10.000
267	162	1 Ekonomia eta Ogasuna	12 Aurrekontu kudeaketa eta finantzakoa	12003 Finantza Politika	Zorpezearen korrituak	06510-6	-10.000
